

TERRORISMOAREN BIKTIMEKIN BAT, ELKARBIZITZAREN ETA ANIZTASUNAREN ALDE

Duela urtebete, Madril Espainian izandako atentatu bortitzenetako baten lekuko izan zen. Atentatuak Espainian eta Espainiatik kanpo eragindako haserre, asaldura eta biktimekiko elkartasunaren ondorioz, martxoaren 11 "Terrorismoaren Biktimen Omenezko Europako Egun"tzat jo zen. Harrez geroztik, martxoaren 11 hausnarketa egiteko, errespetua sustatzeko eta duintasuna berreskuratzeko eguna da, baina baita protesta egiteko eta aldarrikapenak agertzeko eguna ere.

Ez dago inolako arrazoirik milaka familiari eragindako izua eta mina justifikatu dezakeenik. Gainera, familia horiek, askotan, bakartasunean nozitu dituzte indarkeriaren ondorioak. Gaur egun mundua indarkeria itsuaren eta gerraren ondorioak jasaten ari da. Horregatik, mundu osoko demokratek inoiz baino gehiago bat egin behar dugu bakearen eta giza eskubideen errespetuaren defentsan.

Donostiak terrorismoaren biktimen zerrenda luzea dauka. Desegindako familiak eta min samina, maiz gizaratearen ezaxolakeriaren aurrean pilotua, ezagutzen ditugu. Horregatik ezin du ahaztu egun hau, eta horregatik sentitzen gara bereziki solidario Espainian eta munduan indarkeriaren ondorioak jasan dituzten eta oraindik ere jasaten ari direnekin.

Askatasuna eta bizikidetzat demokratikoa aldarrikatzen dugu. Pertsona guztiak, edozein direla ere haien sinesmenak, lanbideak edo jatorria, atentatu ankerren biktima izateko beldurrik gabe bizi daitezten.

Hitza defendatzen dugu, armen aurrean: ideia guztiak bide demokratikoen bidez agertu eta defendatu behar dira eta denak eztabaidatu behar dira, inor mehatxaturik edo hertsaturik sentitu gabe.

Dei egiten diegu erakundeei, alderdi politikoei eta herritarrei jarrera irmo eta bateratua izan dezaten ETAREN eta terrorismoaren aurka. Erailketen eta jazarpenaren aurrean demokratik bat egin behar dugu, tinko.

Bakea, askatasuna, elkartasuna eta, bereizketarik egin gabe, biktima guztien eta haien senitartekoen oroitzapena errespetatzea dira gure helbururik funtsezkoenak. Horregatik behin eta berriz errepikatzen dugu bake bidezkoa eta askatasuna lortzea dela haiei egin diezaikegun omenaldirik onena. Zorretan gaude haiekin, zoritxarrez ez baitiegu beti gure kariñoa eta laguntza behar bezain argi erakutsi.

Berriro ere altxatu nahi dugu ahotsa giza eskubideen defentsan. Ez dugu etsiko indarkeriak eta intolerantziak dirauten bitartean. Horregatik, emandako hitzari eutsi eta lanean tinko jarraituko dugu, bakerako eta indarkeriaren kontrako heziketa bultzatzen eta Bakearen Kulturari lotutako balioak hedatzen.

Ekintza terroristen biktima izandako senitarte eta adiskideak gaur bereziki gogoan dituztenei esan behar diegu ez dugula etsiko indarkeria bukatu arte. Lanean jarraituko dugula, egunean-egunean, aniztasunean eta demokrazian elkarrekin berriro bizi ahal izateko.

Donostian, 2005eko martxoaren 11n

CON LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO, POR LA CONVIVENCIA EN PLURALIDAD

Hace un año Madrid fue testigo de uno de los atentados más terribles ocurridos en España. La indignación, conmoción y la solidaridad con las víctimas suscitadas dentro y fuera del país provocaron que el 11 de marzo fuera proclamado como "Día Europeo de conmemoración de las víctimas del terrorismo", un día para la reflexión, para el respeto y la recuperación de la dignidad, pero también para la protesta y la reivindicación.

No hay razones que puedan justificar el terror y el dolor provocado a miles de familias que han sufrido muchas veces en soledad las consecuencias de la violencia. El mundo hoy está sufriendo las consecuencias de la violencia ciega y de la guerra. Ello nos obliga a los demócratas de todo el mundo a estar hoy más que nunca unidos en la defensa de los valores de la paz y el respeto a los derechos humanos.

San Sebastián, que tiene una larga lista de víctimas del terrorismo, de familias deshechas y de dolor acumulado muchas veces ante la indiferencia de la sociedad, no puede ser ajena a esta fecha y por ello nos sentimos doblemente solidarios con aquellos que en España y en el mundo han sufrido y sufren las consecuencias de la violencia.

Reivindicamos la libertad y la convivencia en democracia. Para que todas las personas, sean cuales sean sus creencias, profesiones o procedencia puedan vivir sin temor a ser víctimas de crueles atentados

Defendemos la palabra frente a las armas: Todas las ideas deben ser expuestas y defendidas por cauces democráticos, y todas las ideas deben ser debatidas sin que nadie se sienta amenazado o coaccionado.

Llamamos a las instituciones, partidos políticos y la ciudadanía a que mantengan una actitud firme y unida frente a ETA y el terrorismo. Ante los asesinatos y la persecución no puede ni debe haber fisuras entre los demócratas.

La paz, la libertad, la solidaridad y el respeto a la memoria de todas las víctimas y sus familias, sin distinciones, es nuestro principal objetivo. Por ello insistimos que la conquista de una paz justa y de la libertad son el principal legado que podemos ofrecer a quienes desgraciadamente no han tenido siempre el cariño y el respaldo suficiente de todos nosotros.

Estamos una vez más elevando nuestra voz en defensa de los derechos humanos. No nos resignamos a asistir a la persistencia de la violencia y de la intolerancia. Por ello seguimos comprometidos a trabajar para educar para la paz y contra la violencia y por extender los valores de la Cultura de Paz, como valor universal.

A quienes hoy especialmente recordarán con tristeza a sus seres queridos víctimas de actos terroristas, les decimos que no vamos a desistir hasta acabar con la violencia. Continuaremos el trabajo diario para recuperar una convivencia en pluralidad y democracia.

Donostia-San Sebastián, 11 de marzo de 2005

Alkatea El Alcalde

Odón Elorza

PSE-EE

Arritxu Marañon

PP

Ramon Gomez

EAJ

Patxi Baztarrika

EA

Jaione Arratibel

EB

Duñike Agirrezabalaga



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



With financial support from the "Pilot Project for the Victims of Terrorist Acts - 2004"
European Commission - Directorate General Justice, Freedom and Security